IRAGARKIA, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena, «Asociación de Oficiales de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco»ren eratze-agiriak gorde direla jakinarazten duena. 2775

**ARABAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARKIA, A-3632 errepidea 52,06 km-tik 54,26 km-ra bitartean (Ellakuri-Garate Gaina) egokitzeko trazadura-proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartzeari buruz Diputatu Kontseiluak hartutako Erabakiarena. 2776

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARKIA, Getxo udalerriko Hiri Antolaketazko Plan Orokorra behin betiko onartzeko 2000ko urtarrilaren 18an emandako foru erabakia jakinarazteko dena. 2790

**GOBERNUAREN ORDEZKARITZA**

IRAGARKIA, garraio-pribatua egiteko baimen-eskari bati ezezkoa ematen dion ebazpena, Gobernuaren Ordezkaritzarena, Fausto González Hidalgo jaunari jakinarazteko dena. 2795

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARRAIOKO ARBITRAJE BATZORDEA**

ZITAZIOA, Ahozko bista baten ekitaldirako. 2796

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la Constitución de la «Asociación de Oficiales de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco». 2775

**DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

ANUNCIO del Acuerdo del Consejo de Diputados por el que se aprueba la relación definitiva de los bienes y derechos afectados por el Proyecto de Trazado de acondicionamiento de la crta. A-3632, p.k. 52,06 a p.k. 54,26 (Ellakuri-Alto de Gárate). 2776

**DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

ANUNCIO relativo al Acuerdo Foral de 18 de enero de 2000, por el que se aprueba el Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo. 2790

**DELEGACIÓN DEL GOBIERNO**

ANUNCIO de notificación de la resolución dictada por esta Delegación del Gobierno por la que se declara el desistimiento de solicitud de autorización de transporte privado a Fausto González Hidalgo. 2795

**JUNTA ARBITRAL DEL TRANSPORTE DEL PAÍS VASCO**

CITACIÓN para el Acto de la Vista Oral. 2796

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-652

22/2000 DEKRETUA, otsailaren 1ekoa, Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku-Batzordea sortzeko den Dekretua aldatzeko.

Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku-Batzordea erakunde olegiatua da administrazio publikoei, gobernuz kanpoko erakundeei eta Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako agente sozialei Hirugarren Munduaren aldeko Garapen Lankidetzaz duten esku hartzea bultzatzeko.

Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku-Batzordeko kideak dira: Garapen eta Lankidetza Sustatzeko

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-652

DECRETO 22/2000, de 1 de febrero, de modificación del Decreto por el que se crea el Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi.

El Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi fue constituido como órgano colegiado de asesoramiento y promotor de la participación de las Administraciones Públicas, Organizaciones No Gubernamentales y otros agentes sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco en las políticas sobre Cooperación al Desarrollo a llevar a cabo en países del Tercer Mundo.

Forman parte del Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi los miembros de la Comisión

Fondoko (GLSF) Kudeaketa Batzordekoak, Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundekoak (GGKE), erlijio ordenetakoak eta Garapen Lankidetzaren alorrean lanean ari diren beste erakundeetakoak.

Urriaren 19ko 350/1999 Dekretuaren bidez GLSFko Kudeaketa Batzordera Emakunde erakunde autonomoa atxiki da, atxikimendu honek garapen lankidetza programei genero perspektiba bat ematen dio. Eta horrek Kudeaketa Batzordean emandako gehiketaren berri Aholku Batzordea arautzen duen araura eranstea eskatzen du.

Elkartasun jokaeratan haurtzaroaren problematikak alor honetan zehazki lana egiten duten erakundeen ordezkaritza izatea gomendatzen du, Euskadin gai horretaz kudeatu eta aholkua ematen duten organoetan. Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordearen eginkizuna, elkartasun politiketan, Euskal Autonomia Erkidegoko eragile sozialak Administrazio Publikoekin batera parte hartzea sustatzea izango da, beraz egokia deritzo bere barnean haurtzaroaren alorrean lana egiten duten erakundeen ordezkaritza bat onartzea.

Egokia da, beraz, martxoaren 24ko 53/1998 Dekretua aldatzea, Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea sortzeko dena, bere 3. artikuluan, a) eta d) idatz-zatietan, eta aurrez aipatutako bi aldeetan.

Ondorioz, Jaurlaritzako Lehendakaritzaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko otsailaren 1ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– Martxoaren 24ko 53/1998 Dekretuaren 3. artikuluaren aldaketa («Osaketa»).

Aipatutako dekretu horretako 3. artikulua era honetan geldituko da:

> «*3. artikulua.*– Honako hauek izango dira Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordeko kideak:
>
> a) Hirugarren Munduko Garapen eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren Kudeaketa Batzordeko 11 kideak eta EUDELen ordezkari bat.
>
> b) Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen (GGKE) zazpi ordezkari.
>
> c) Euskadin ezarritako erlijio ordenen ordezkari bat.
>
> d) Garapen Lankidetzaren alorrean ari diren erakundeen hiru ordezkari:
>
> – Bata, Haurtzaro alorrekoa.
>
> – Bestea, Euskadiko hezkuntza-lanbide heziketa alorrekoa.

Gestora del FOCAD, representantes de las ONGDs de Euskadi, de las Órdenes Religiosas y de otras entidades que trabajan en ámbitos relacionados con la cooperación al desarrollo.

Por Decreto 350/1999, de 19 de octubre, se ha incorporado a la Comisión Gestora del FOCAD el Organismo Autónomo Emakunde, lo que aporta una perspectiva de género a los programas de cooperación al desarrollo. Ello requiere trasladar a la norma que regula el Consejo Asesor este incremento producido en la Comisión Gestora.

La problemática de la infancia en las actuaciones de solidaridad aconsejan igualmente disponer de una representación de entidades que trabajen específicamente en estos campos, en los órganos que gestionan y asesoran sobre esta materia en Euskadi. Siendo función del Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi promover, en las políticas de solidaridad, la participación de los agentes sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco junto a las Administraciones Públicas, parece oportuno dar cabida en su seno a una representación de entidades que trabajen en el ámbito de la infancia.

Procede, por tanto, modificar el Decreto 53/1998, de 24 de marzo, por el que se crea el Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi, en su artículo 3, apartados a) y d), y en los dos aspectos mencionados.

Por lo anterior, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión del día 1 de febrero de 2000,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Modificación del artículo 3 del Decreto 53/1998, de 24 de marzo («Composición»).

El artículo 3 del citado Decreto queda redactado de la siguiente forma:

> «*Artículo 3.*– El Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi estará compuesto por los siguientes miembros:
>
> a) Los 11 integrantes de la Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo y un representante de EUDEL.
>
> b) Siete representantes de las ONGDs de Euskadi.
>
> c) Un representante de Órdenes Religiosas con implantación en Euskadi.
>
> d) Tres representantes de entidades que trabajen en ámbitos relacionados con la Cooperación al Desarrollo.
>
> – Uno del ámbito de la Infancia.
>
> – Uno del sector de la Educación – Formación Profesional de Euskadi.

– Eta hirugarrena, mikroenpresak edota kooperatibak sortzearen alorrekoa.

e) Garapen bidean dauden herrialdeekin jatorri harremana duen pertsona bat.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean .

Vitoria-Gasteizen, 2000ko otsailaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

– Uno vinculado a la creación de microempresas y/o cooperativas.

e) Una persona vinculada por su origen con los Países en Vías de Desarrollo.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 1 de febrero de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## HERRIZAINGO SAILA

## Zk-653

AGINDUA, 2000ko otsailaren 1ekoa, Herrizaingo sailburuarena, Ertzaintzaren egitura berria onesten duena, 1997ko uztailaren 28ko Aginduak onetsitako oraingo egitura aldatuta.

1997ko uztailaren 28ko Aginduak (abuztuaren 8ko EHAA, 150 zk.) Ertzaintzaren egitura onetsi zuen, eta antolamendu juridikoan eman zaizkion eginkizunak betetzeko, Ertzaintzak izan behar zituen alorrak, unitateak, atalak, taldeak eta zerbitzuak ezarri zituen.

Herrizaingo Sailaren egitura organikoari buruzko azken dekretuak, urriaren 19ko 358/1999 Dekretuaren bidez onetsitakoak, funtsezko aldaketak eragin ditu Segurtasun Sailburuordetzaren zuzendaritzen eginkizunetan eta jarduera-eremuetan, eta horregatik beharrezkoa da Ertzaintzaren egituraren antolamendua doitzea. Horrela giza baliabideen kudeaketa arrazionalagoa eta, bide beretik, kudeaketa publiko eraginkorragoa lortuko da, herritar guztien interesen onerako.

Horregatik, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 107.2 artikuluan eman zaidan ahalmena erabiliz, ondokoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Ertzaintzaren egitura onestea, agindu honen eranskinean ageri den bezala.

*2. artikulua.–* Agindu honen eranskinean ageri diren unitate eta alorren menpekotasun organikoak ho-

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

## N°-653

ORDEN de 1 de febrero de 2000, del Consejero de Interior, por la que se aprueba la nueva estructura de la Ertzaintza, modificando el contenido actual de la aprobada por Orden de 28 de julio de 1997.

Mediante Orden de 28 de julio de 1997 (BOPV n.º 150, de 8 de agosto) se aprobó la estructura de la Ertzaintza estableciendo las distintas Divisiones, Unidades, Secciones, Grupos y Servicios en los que quedaba configurada para el ejercicio de las funciones que le atribuye el ordenamiento jurídico.

El nuevo Decreto de estructura orgánica del Departamento de Interior, aprobado por Decreto 358/1999, de 19 de octubre, ha introducido modificaciones sustanciales relativas a las funciones y áreas de actuación de las diversas Direcciones de la Viceconsejería de Seguridad, resultando necesaria la realización de ajustes organizativos en la estructura de la Ertzaintza con el fin de obtener una más racional gestión de los recursos humanos, y, consecuentemente, una mayor eficacia y eficiencia de la gestión pública en orden a la satisfacción del interés general.

Por lo anterior, en virtud de la competencia prevista en el artículo 107.2 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Aprobar la estructura de la Ertzaintza como figura en el Anexo a la presente.

*Artículo 2.–* Las dependencias orgánicas de las Unidades y Divisiones cuya estructura se recoge en el Ane-